



OSASUN SAILA
Osasun Sailburuordetza
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD
Viceconsejería de Salud
Dirección de Salud Pública y Adicciones

**Elgorriaren kasu susmagarriak ospitalez
kanpo maneiatzeko aldi baterako
gomendioak
- 2025eko otsailaren 11 -**

Ospitaletik kanpo elgorriaren kasu susmagarri bat identifikatzen bada, funtsezkoa da kontrol-neurriak hartzea, transmisio-arriskua minimizatzeko. Gomendio hauek ezartzen dira paziente, senide, zaintzaile eta profesional sanitarioentzat:

1. Etxeko neurriak. Pazientea isolamenduan egongo da etxean transmisio-aldian (exantema hasi baino 4 egun lehenago eta handik 4 egunera) edo laborategiak baztertu arte.

- Pazienteak ondo aireztatutako **banakako gela batean** egon behar du, atea itxita eta sarrera mugatuta. Ez da etxetik irten behar, beharrezkoa ez bada.
- Beste pertsona batzuekin **kontaktua mugatzea** gomendatzen da, bereziki immunodeprimituekin, haurdun dauden emakumeekin eta bularreko umeekin, eta txertorik gabeko urtebetetik beherakoekin.
- **Erabilera komuneko objektuekin** kontaktu zuzena izatea saihestu behar da, eta inguruneke higiena indartu (gainazalak, oheko arropa, lanabesak).
- **Pazienteak maskara kirurgikoa** erabili behar du, baldin eta etxean beste pertsona batzuk badaude. **Pazientearekin bizi diren pertsonak FFP2 maskara** erabiltzea gomendatzen da, gertuko kontaktua badute.
- **Eskuen higiena** indartu behar da, gel hidroalkoholikoak maiz erabiltzen direla edo urarekin eta xaboiarekin garbitzen direla ziurtatuz, bereziki pazientearekin edo haren objektu pertsonalekin kontaktua izan ondoren.
- Gomendatzen da pazientearen osasun-arreta lehenatasunez etxean ematea,

**Recomendaciones temporales para el
manejo extrahospitalario de casos
sospechosos de sarampión
- 11 de febrero de 2025 -**

Ante la identificación de un caso sospechoso de sarampión fuera del ámbito hospitalario, es fundamental adoptar medidas de control para minimizar el riesgo de transmisión. Se establecen las siguientes recomendaciones para pacientes, familiares, cuidadores y profesionales sanitarios.

1. Medidas en el domicilio. El paciente estará en aislamiento domiciliario durante el periodo de infectividad (4 días antes y 4 después del inicio del exantema) o hasta que se hayan descartado por laboratorio.

- El paciente debe permanecer en una **habitación individual** bien ventilada, con la puerta cerrada y con acceso restringido. No debe salir del domicilio si no es necesario.
- Se recomienda **limitar el contacto** con otras personas, especialmente con personas inmunodeprimidas, mujeres embarazadas y lactantes, y menores de un año sin vacunación.
- Se debe evitar el contacto directo con **objetos de uso común** y reforzar la higiene del entorno (superficies, ropa de cama, utensilios).
- El **paciente debe usar mascarilla** quirúrgica siempre que esté **en presencia de otras personas** dentro del domicilio. Se recomienda que **las personas que conviven** con el paciente utilicen **mascarilla FFP2 si tienen contacto** cercano.
- Se debe **reforzar la higiene de manos**, asegurando el uso frecuente de soluciones hidroalcohólicas o lavado con agua y jabón, especialmente después del contacto con el paciente o sus objetos personales.
- Se recomienda de manera preferente la atención sanitaria del paciente en su



OSASUN SAILA
Osasun Sailburuordetza
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD
Viceconsejería de Salud
Dirección de Salud Pública y Adicciones

[Elgorriaren kasu susmagarriaren aurreko prozeduraren arabera.](#)

domicilio de acuerdo al [Procedimiento ante caso sospechoso de sarampión.](#)

2. Osasun-zentrora joatea. Pazientearen egoera klinikoak osasun-zentro batera joatea eskatzen badu, honako neurri hauek hartu behar dira:

- **Etiket irten aurretik, pazienteak maskara kirurgiko** bat jarri behar du, eta jantzita eraman ibilbide osoan.
- **Ez da gomendatzen pazienteak garraio publikoa erabiltzea** beste pertsona batzuekiko esposizioa saihesteko. Ibilgailu pribatua eramatea gomendatzen da.
- **Gidariak eta beste laguntzaile batzuek FFP2 maskara** erabili behar dute, pazientearekin kontaktu zuzena saihesteko.

3. Pazientea anbulantzia eramatea.

Pazientearen egoera klinikoa dela-eta anbulantzia batean eraman behar bada, jarraibide hauei jarraitzea gomendatzen da:

- **Larrialdi-zerbitzuari abisatu aurretik**, elgorriaren kasu susmagarri bat dela jakinarazteko.
- Pazienteak **maskara kirurgiko** bat eraman behar du uneoro, bere egoera klinikoak horretarako aukera ematen badu.
- Lekualdatzean, osasun-taldeak **arreta-neurri estandarrak** eta **aire-transmisorako arreta-neurriak** jarraitu behar ditu, FFP2 maskara edo goragokoa erabiltzea barne, eta laneko arriskuen prebentzio-zerbitzuen jarraibideei jarraituz.
- Anbulantziak **aireztatuta egon behar du**, ahal den neurrian, eta lekualdaketa ondoen **garbiketa eta desinfekzio** osoa egin behar du, aireko transmissioko gaixotasunak garbitzeko protokoloak jarraituz.

2. Desplazamiento al centro sanitario. Si la situación clínica del paciente requiere su asistencia a un centro sanitario, se deben tomar las siguientes precauciones:

- **Antes de salir del domicilio, el paciente debe colocarse una mascarilla quirúrgica** y llevarla puesta durante todo el trayecto.
- **No se recomienda que el paciente utilice transporte público** para evitar la exposición a otras personas. Se recomienda el traslado en vehículo privado.
- **El conductor y otros acompañantes deben usar mascarilla FFP2** y evitar el contacto directo con el paciente.

3. Traslado del paciente en ambulancia. Si la situación clínica del paciente requiere su traslado en una ambulancia se recomienda seguir las siguientes indicaciones:

- **Avisar previamente al servicio de emergencias** para informar que se trata de un caso sospechoso de sarampión.
- El paciente debe llevar puesta una **mascarilla quirúrgica** en todo momento si su situación clínica lo permite.
- Durante el traslado, el equipo sanitario debe seguir las medidas de **precaución estándar** y las medidas de **precaución para transmisión aérea**, incluyendo el uso de mascarilla FFP2 o superior y siguiendo las indicaciones de los servicios de prevención de riesgos laborales.
- La ambulancia debe **mantenerse ventilada** en la medida de lo posible y proceder a una **limpieza y desinfección** completa después del traslado, siguiendo los protocolos de limpieza para enfermedades de transmisión aérea.



OSASUN SAILA
Osasun Sailburuordetza
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SALUD
Viceconsejería de Salud
Dirección de Salud Pública y Adicciones

4. Aldez aurreko komunikazioa osasun-zentroarekin. Osasun-zentrora edo ospitalera joan aurretik, ezinbestekoa da helmugako zentrora telefonoz deitzea, beharrezko neurriak har daitezen eta beste pertsona batzuekiko esposizio-arriskua minimiza dadin.

- Deia jasotzen duen zentroa arduratuko da pazientearen helmugako zentroarekin harremanetan jartzeaz. Helmugako osasun-zentroari jakinarazi behar zaio **elgorri-kasu susmagarri** bat hartuko duela, sintomak eta horien hasiera-data zehaztuta, pazientea iritsi aurretik neurri egokiak ezarri ahal izan ditzan.
- Pazienteak osasun-zentroak ematen dizkion berariazko **jarraibideei jarraitu** behar die, iritsi eta arreta-eremura sar dadin.

5. Osasun-zentrora iristea eta bertara sartzea. Osasun-zentrora iristean, pazienteak itxarongela orokorrak saihestu behar ditu, eta zuzenean joan behar du osasun-langileek adierazitako arreta-eremura. Maskara kirurgikoa une oro eduki behar du profesional batek baloratu arte.

Informazio gehiago Osasun Sailaren [elgorriaren webgunean](#).

4. Comunicación previa con el centro sanitario. Antes de acudir al centro de salud u hospital, es imprescindible **informar telefónicamente** al centro de destino para que se adopten las medidas necesarias y minimizar el riesgo de exposición a otras personas.

- El centro que recibe la llamada será el encargado de contactar con el centro de destino del paciente. Se debe informar al centro sanitario de destino que va a recibir a un **caso sospechoso** de sarampión, detallando síntomas y fecha de inicio de los mismos, para que pueda implementar las medidas adecuadas antes de la llegada del paciente.
- El paciente debe **seguir las indicaciones** específicas que le proporcione el centro sanitario para su llegada y acceso al área de atención.

5. Llegada y acceso al centro sanitario. Al llegar al centro sanitario, el paciente debe evitar las salas de espera generales y dirigirse directamente al área de atención indicada por el personal sanitario. Debe mantener la mascarilla quirúrgica en todo momento hasta que sea valorado por un profesional.

Más información en la página [web del sarampión](#) del Departamento de Salud.

Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza / Dirección de Salud Pública y Adicciones
Osasun Sailburuordetza / Viceconsejería de Salud
Osasun Saila / Departamento de Salud